

Sin./Fdo.: MIGUEL ANGEL CASTILLA SAIZ 2022-12-05
ESKARIAREN KUDEAKETA ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE GESTIÓN DE LA DEMANDA

Sin./Fdo.: JOSE PAREJO HERRERA 2022-12-05
PLANGINTZA ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A DE SERVICIO DE PLANIFICACIÓN

Sin./Fdo.: FELIPE COBO SANCHEZ 2022-12-05
BIDE-SAREA KUDEATZEKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE GESTIÓN DE LA RED VIARIA

Sin./Fdo.: JON ERAIMUNDA LARREA ARRUTIA 2022-12-05
BERRIKUNTZARAKO ETA BIDEEN KUDEAKETARAKO ZUZENDARITZA NAGUS.-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INNOVACIÓN Y GESTIÓN VIARIA

Sin./Fdo.: IMANOL PRADALES GIL - 2022-12-05
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2022-12-13
GZko 16.gaia onartuta - Aprobado, asunto 16) de OD

ERABAKIA, “Itsasadarreko oinezko eta bizikletentzako ardatza Altzaga-Lamiako tartean eraikuntza-proiektua” behin betiko onestekoa.

ACUERDO de aprobación definitiva del “Proyecto de construcción del eje peatonal y ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako”.

AURREKARIAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko maiatzaren 10ko Erabakiaren bidez (25. gaia), “Itsasadarreko oinezko eta bizikletentzako ardatza Altzaga-Lamiako tartean trazatzeko proiektua” behin-behinean onetsi eta informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapidean ezarri zen, bizikleta-bideen araudi sektoriala betetzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko azaroaren 22ko Erabakiaren bidez (gai-zerrendako 33. gaia), jendaurrean jartzeko eta eragindako toki-korporazioei entzuteko izapideak ebatzi ziren, eta behin betiko onartu zen “Itsasadarreko oinezko eta bizikletentzako ardatza Altzaga-Lamiako tartean trazatzeko proiektua” deritzona.

Azpiegiturak eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Eskaria Kudeatzeko Atalak Sail honetako Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko Atal Juridiko Administratiboari bidali dio, behin betiko onar dezan, “Itsasadarreko oinezko eta bizikletentzako ardatza Altzaga-Lamiako tartean eraikuntza-proiektua”. Bidalitako proiektutik honako hau nabarmentzen da:

ANTECEDENTES

Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 10 de mayo de 2022 (asunto nº 25), se procedió a la aprobación provisional “Proyecto de trazado del eje peatonal y ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako” y su sometimiento al trámite de información pública y audiencia a los efectos de la normativa sectorial de vías ciclistas.

Mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de 22 de noviembre de 2022 (asunto 33 del orden del día), se procedió a resolver los tramites de información pública y audiencia a las corporaciones locales afectadas y aprobar definitivamente el “Proyecto de trazado del eje peatonal y ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako”

Por la Sección de Gestión de la Demanda del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial ha sido remitido a la Sección Jurídica Administrativa del Servicio de Servicios Generales de este Departamento, para su aprobación definitiva, el “Proyecto de construcción del eje peatonal y ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako”. Del mismo se desprende lo siguiente:





PROIEKTUAREN HELBURUA

Dokumentu honen xedea da bizikleta- eta oinezkoentzako ibilbide bat egiteko behar diren obrak eraikuntza-proiektuaren mailan zehaztea. Tarte hau Erandioko udalerriko Alzaga eta Leioako udalerriko Lamiako auzoen artean dago kokatuta.

Proiektu honetan aurreikusitako jarduketak egungo plataformaren berrantolaketa osoa planteatzen du. Plataforma horren gainean dago BI-711 errepidea eta Alzaga (Erandio) eta Lamiako (Leioa) auzoen arteko 3 km inguruko tartean jardungo da.

Berrantolaketa horren ondorioz, oinezkoen (3,0 m) eta bizikleten (4,0 m) bide berria egingo da, itsasadarretik hurbilen dagoen bandatik igaroko dena. Halaber, itsasadarreko errepidearen galtzada birjarriko da (6,8 m) eta fatxaden aldeko barruko espaloia erregularizatuko da gutxienez 3,0 m-ko zabalera jarraitua ahalbidetzeko.

Horrela, motordun ibilgailuekiko ordezko ibilbidea sortzen da udalerrien arteko distantzia laburra-ertaineko ibilbideetarako, baina proiektuaren xedea ez da soilik kirol-aisialdiko alternatiba eskaintzea, baizik eta udalerrri horien arteko mota guztietako joan-etorrietarako benetako alternatiba, hiri-mugikortasun iraunkorra sustatuz, Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialean oinarritutako Bizikleta Mugikortasunaren Estrategiaren barruan kokatzen dena. Era berean, funtsezko tresna gisa eratzen da 2050erako Euskal Agentzian ezarritako karbonoaren neutraltasunaren helburuan mugikortasun-modu aktiboen ekarpenerako, EBren eta Parisko Akordioaren esparruan ezarritako helburuekin bat etorritz. Horien arabera gutxienez BEG isuriak % 40 murriztu behar dira 2030erako eta % 80 2050erako (2005eko mailekin alderatuta).

Azpiegitura berriak eskuinaldeko eta ezkerreko guneen artean oinez edo bizikletaz iristea ere errazten du, Erandio eta Barakaldo artean proiektatutako pasabidea eginez. Horri esker, gainera, eremuan garraio publiko iraunkorreko sareekin (Bilboko metroa, aldiriko trenak eta autobus-lineak,...) konekta daiteke.

OBJETO DEL PROYECTO

El objeto del presente documento es la definición a nivel de proyecto constructivo, de las obras necesarias para la ejecución de un itinerario ciclista y peatonal entre los barrios de Alzaga, en el término municipal de Erandio, y Lamiako, en el término municipal de Leioa.

La actuación prevista en el presente proyecto plantea una reordenación completa de la actual plataforma sobre la que se asienta la carretera BI-711 a lo largo de un tramo de unos 3 km entre los barrios de Alzaga (TM de Erandio) y Lamiako (TM de Leioa).

Esta reordenación supone dar cabida a una nueva senda peatonal (3,0 m) y ciclable (4,0 m), que discurrirá por la banda más cercana a la Ría, la reposición de la calzada de la carretera de la Ría (6,8 m) y una regularización de la acera interior, del lado de las fachadas, que posibilite un ancho mínimo continuo de 3,0 m.

Se genera así un itinerario alternativo a los motorizados para los recorridos de corta-media distancia entre municipios, que no pretende ser sólo una alternativa de ocio deportivo, sino una alternativa real para los desplazamientos de cualquier tipo entre estos municipios, fomentando la movilidad urbana sostenible, enmarcada en la Estrategia de la movilidad ciclista fundamentada en el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas en elaboración, quien a su vez se configura como un instrumento clave en la aportación de los modos activos de movilidad en el objetivo de neutralidad del carbono establecidos en la Agencia Vasca 2050, en sintonía con los objetivos establecidos en el marco de la UE y del Acuerdo de París. Y que conllevan, al menos, la reducción de un 40% de las emisiones GEI para 2030 y de un 80% para el 2050 (en relación con los niveles de 2005).

La nueva infraestructura favorece también el acceso a pie o en bici entre los núcleos de la margen derecha e izquierda, con la ejecución de la pasarela proyectada entre Erandio y Barakaldo. Esto permite además la conexión con las redes de transporte público sostenible en el ámbito (Metro Bilbao, trenes de cercanías y líneas de autobuses...).





Horrela hiri-garraio kolektiboa eta ingurumena errespetatzen duena bultzatzen da, CO2 emisioak murriztuko dituen ekogarria sustatzen da, energia aurrezte erraztuko da, petrolioarekiko mendekotasuna murriztuko du eta mugikortasun ez hain motorizatua sustatuko du, oinez eta bizikletaz egin beharreko joan-etorriak sustatuz eta garraio publikoa gehiago erabiltzea eraginez. Era berean, landa-eremuak hirigune nagusiekin lotzea sustatzen da, oinezko eta txirrindularientzako ibilbide eskusiboen bidez, pertsona hauen segurtasuna bermatzeko eta, garraio publiko iraunkorreko sareekin konbinatuta, lurralde zabala euren eskura jartzeko, ibilgailu pribatura jo beharrik eduki gabe.

Se favorece así el transporte urbano colectivo y respetuoso con el Medio Ambiente, el ecotransporte que reducirá las emisiones de CO2, favorecerá el ahorro de energía, reducirá la dependencia del petróleo, y fomentará una movilidad menos motorizada, promoviendo los desplazamientos a pie y el transporte en bicicleta a la vez que fomentando un mayor uso del transporte público. Se fomenta así mismo la conexión de los ámbitos rurales con las principales zonas urbanas a través de itinerarios exclusivos para peatones y ciclistas que garanticen la seguridad de los mismos y que, combinados con las redes de transporte público sostenible, pongan a su alcance un amplio territorio sin necesidad de recurrir al vehículo privado.

AUREKONTUA ETA GAUZATZEKO EPEA

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZik gabe, ZORTZI MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (8.173.576,19€) da, eta BEZa (%21) BEDERATZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (9.890.027,19 €).

PRESUPUESTO Y PLAZO DE EJECUCIÓN

El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de OCHO MILLONES CIENTO SETENTA Y TRES MIL QUINIENTOS SETENTA Y SEIS EUROS CON DIECINUEVE CENTIMOS (8.173.576,19 €) y con IVA (21%) a la cantidad de NUEVE MILLONES OCHOCIENTOS NOVENTA MIL VEINTISIETE EUROS CON DIECINUEVE CENTIMOS (9.890.027,19 €).

Eraikuntza proiektuaren aurrekontuen eta Trazaduraren arteko desbideraketa ekonomikoak arrazoi hauengatik gertatu dira:

- Kalitate handiko akabera duten hiri-ekipamendu garrantzitsua, (zoladurak eta zintarriak, landaredia eta zuhaitziak, barandak, altzariak, komunak, bio-osasungarriak...).
- Jarduketan garrantzitsuak diren lehengaiak (zoruak, altzairua) garestitzea.

Las desviaciones económicas resultantes entre los presupuestos del Proyecto de construcción respecto al de Trazado han sido motivados por:

- Importante dotación de equipamiento urbano con acabados de alta calidad (pavimentos y bordillos, vegetación y arbolado, barandillas, mobiliario, aseos, biosaludables...).
- Encarecimiento materias primas que cuentan con un peso importante en la actuación (firmes, acero...).

Lanak egiteko aurrez ikusitako epea HAMASEI (16) hilabetekoa da.

El plazo estimado para la ejecución es de DIECISEIS (16) meses.

PROIEKTUA GAINBEGIRATZEARI BURUZKO TXOSTENA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Plangintza Zerbitzuko buruak aldeko txostena eman du.

INFORME DE SUPERVISIÓN DEL PROYECTO

Informado favorablemente por el Jefe del Servicio de Planificación del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

HONDAKINEN KUDEAKETA

eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen

GESTIÓN DE RESIDUOS

En el Anejo nº 8 se recoge la Gestión de





kudeaketa definitzen duen eranskina sartuko da. Azterlan hori 105/2008 Errege Dekretuaren (eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena) eta ondorengo garapen-araudiaren arabera idatziko da ("112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, EAeko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen").

Azterlanaren helburua da obran zehar sortuko diren hondakinak zenbatestea, eta orobat balioko du eraikitzailearen Hondakinak Kudeatzeko Plana (HKP) idatzeko oinarri gisa. Hornitzaileen eta obraren gauzatzearen beraren arabera, azterlan honetan jasotako aurreikuspenekin bat berretuko eta garatuko da plana.

BIDE-SEGURTASUNAREN AUDITORIA

Zerbitzu Sustatzailearen txostenean jasotzen den bezala, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko bide-azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzko ekainaren 24ko 80/2014 Foru Dekretuaren arabera, proiektuaren xede den jarduketak ez du funtsezko eraginik foru errepideen bide-segurtasunean, eta, beraz, ez da beharrezkoa bide-segurtasunari buruzko auditoretza txostena idaztea.

ZUINKETA ETA AZTERKETA GEOTEKNIKOAK

Proiektuaren Kartografia eta Topografiaren 1. eranskinean proiektua egiteko azterketa-eremuaren irudikapen grafiko zehatza egiteko beharrezkoak diren lan topografikoak biltzen dira.

2. eranskinean, Geologia eta Geoteknia izenekoan, jarduketa-eremuan egin den azterketa geologikoa eta geoteknikoa dago jasota, eraikuntza-proiektua dagoen luraren eredu geologikoa eta geoteknikoa definitzeko helburuarekin.

PAISAIA-AZTERKETA

13. eranskinean, paisaia-integratioari buruzko azterketa jasotzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan xedatutakoa aplikatuz. Izan ere, proiektuak

Residuos de Construcción y Demolición, estudio que se ha redactado de acuerdo con el RD 105/2008 por el que se regula la producción y gestión de los residuos de la construcción y demolición, y la normativa de desarrollo posterior "Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición" de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El estudio tiene como objetivo realizar una estimación de los residuos que se producirán durante la obra y también servirá como base de la redacción del correspondiente Plan de Gestión de Residuos (PGR) del Constructor. En función de los proveedores y de la propia ejecución de la obra, el plan será ampliado y desarrollado según las previsiones contenidas en este estudio.

AUDITORÍA DE SEGURIDAD VIARIA

Tal y como se recoge en el informe del Servicio Promotor y de acuerdo al Decreto Foral 80/2014, de 24 de junio, sobre gestión de la seguridad de las infraestructuras viarias en la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, la actuación objeto del Proyecto no supone una afección sustancial a la seguridad viaria de ninguna carretera foral, por lo que no es necesario la redacción del correspondiente informe de auditoría de seguridad viaria.

REPLANTEO Y ESTUDIO GEOTÉCNICO

En el Anejo nº1, Cartografía y Topografía se incluyen los trabajos topográficos necesarios para la representación gráfica precisa de la zona de estudio.

En el Anejo nº2, Geología y Geotecnia, se analiza el proyecto desde el punto de vista geológico y geotécnico. El objetivo del anejo es la definición del modelo geológico - geotécnico del terreno en el que se inscribe el Proyecto de construcción.

ESTUDIO PAISAJÍSTICO

En el Anejo nº 13 se recoge el Estudio de Integración Paisajística, en aplicación de lo dispuesto en el Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dado





itsasadarraren eskumaldean dagoen paisaia-interes bereziko eremu bati eragiten dio (Bilbo-Metropoliko Paisaiaren Katalogoaren eta zehaztapenen arabera).

que el Proyecto afecta a un Área de Especial Interés Paisajístico en la margen derecha de la Ría (según el Catálogo y determinaciones del paisaje Bilbao-Metropolitano).

SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO AZTERLANA

Eraikuntza-proiektuan, 5 zk. duen dokumentu modura, segurtasun eta osasuneko Azterlana sartu da. Azterlan horren helburua da obretan egin beharreko jarduerak arautzea, istripu eta gaixotasun profesionalen arriskuak prebenitu eta saihesteko, indarrean dagoen araudiak agintzen duen laneko segurtasun eta osasungarritasun giro egokia sortuta.

ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD

En el Proyecto Constructivo, como Documento nº 5, se incluye el correspondiente Estudio de seguridad y salud cuyo objeto es el de regular las actividades que se han de desarrollar en las obras, con el fin de prevenir y evitar los riesgos de accidentes y enfermedades profesionales, creando el clima adecuado de seguridad y salubridad en el trabajo que prescribe la normativa en vigor.

Azterlanak oinarritzko jarraibideak jaso ditu enpresa eraikitzailearentzat, lanbide-arriskuen prebentzioaren arloan dituen betebeharrak gauzatzeko, eta erraztu egingo du haren garapena, obra-zuzendaritzaren kontrolpean, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

El Estudio recoge las directrices básicas a la Empresa Constructora para llevar a cabo sus obligaciones en el campo de la prevención de riesgos profesionales, facilitando su desarrollo bajo el control de la Dirección de Obra de acuerdo con lo que prescribe el Real Decreto 1627/1997, de 24 de Octubre.

PREZIOEN SAILKAPEN ETA BERRIKUSPENA

Eraikuntza-Proiektuaren Memoriak ezarri du kontratistaren sailkapena.

CLASIFICACIÓN Y REVISIÓN DE PRECIOS

En la memoria del Proyecto de Construcción se establece la clasificación del contratista.

Ez da aurreikusten prezioak berrikustea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103 artikuluaen arabera.

No se contempla revisión de precios según el artículo 103 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

INFORMAZIO PUBLIKOA ETA ENTZUNALDIA

Ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arau horren Lehen Xedapen Iragankorren arabera, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorial berria izapidetzen ari denez, posible izango da 20. artikuluko 1a) multzoko bizikleta-bideak eraikitzeo proiektuen exekuzioa bideratzea, toki-korporazioei 30 egun balioduneko informazio publikoaren eta bi hileko entzunaldiaren izapidea ezarriz.

INFORMACIÓN PÚBLICA Y AUDIENCIA

Conforme a la Disposición Transitoria Primera de la citada Norma Foral 10/2014 de 27 de junio, estando en tramitación el nuevo Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, se podrá viabilizar la ejecución de los proyectos de construcción de vías ciclistas del grupo 1a) del artículo 20, con un trámite de información pública de 30 días hábiles y audiencia por un periodo de dos meses a las corporaciones locales.

Erandioko udalerriko Altzaga eta Leioako udalerriko Lamiako auzoen artean kokatuta dagoen bizikleta-bide berri gisa sailkatzen da proiektua. Informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapideak egin dira Erandioko eta Leioako udalen eta Bilboko Portu Agintaritzaren kasuan eta, beraz, aipaturiko izapide horiek ebatzi eta trazadura proiektua

El proyecto se clasifica como una nueva vía ciclista que discurre entre los barrios de Altzaga, en el término municipal de Erandio, y Lamiako, en el término municipal de Leioa. Se han realizado los trámites de información pública y de audiencia a los Ayuntamientos de Erandio y Leioa, así como a la Autoridad Portuaria de Bilbao y se ha dictado resolución





behin betiko onartu da. Beraz, bidezkoa da eraikuntza-proiektua onartzea, jarduketa osorik garatuta.

INGURUMEN-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Behin-betiko onesteko bidalitako txostenean adierazten denez, behin aztertu ondoren euskal erkidegoan eta estatuan indarrean dagoen araudian jasotako ebaluazio-kasuak – EAEko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea-, baztertu egin da araututako ingurumen-ebaluazioko prozedurak proiektu honi ezartzeko beharra.

de dichos trámites y de aprobación definitiva del proyecto de trazado. Por lo tanto, procede la aprobación del proyecto de construcción, con el desarrollo completo de la actuación.

EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL

Según se indica en el informe remitido para la aprobación definitiva, una vez analizados los supuestos de evaluación recogidos en la normativa vigente autonómica y estatal, Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, y en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental, se descarta la necesidad de someter el presente proyecto a ninguno de los procedimientos de evaluación ambiental.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Lehenengoa.- Bizikleta-bidea aplikatzeko eta sailkatzeko araudia.

Honako eraikuntza-proiektu hau, dituen ezaugarriengatik, bizikleta-bide forala da, Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko 10/2014 Foru Arauaren 3. artikuluan (“Bizikleta-bide foralen definizioa”) eta 3. eranskinean (“Bizikleta-bide foralen definizioa eta bizikleta-bideen tipifikazioa”) araututakoa ikusita hain zuzen. Zehatz esanda, zatirik handienean bizikleta-espaloi babestua da, oinezkoekin partekatzeko den bizikleta-bide zati batekin.

Jarduera hau “1a) Bizikleta Bide Berriak” motako obren sailkapenaren barruan sartzen da. Bizkaiko Foru Bizikleta Bideei buruzko 10/2014 Foru Arauaren 20. artikulua.

Aurrekoaren ondorioz, Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko 10/2014 Foru Arauan araututakoa aplikatu behar da.

Bigarrena.- Izapideak. Informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapideen ebazpena eta behin betiko onespena.-

Gaur egun, Bizkaiko Bizikleta- bideen Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen ari da, Batzar Nagusiek onets dezaten.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.- Normativa de aplicación y clasificación de vía ciclista.-

El presente proyecto de construcción por sus características se trata de una vía ciclista de carácter foral a la vista de lo regulado en el artículo 3 “Definición de las vías ciclistas forales” y Anexo 3 “Tipificación de las vías de circulación en bicicleta y ámbito de aplicación de la norma” de la Norma Foral 10/2014, de vías ciclistas forales de Bizkaia. Concretamente, se trata en su mayor parte de una acera-bici protegida, con un tramo de senda ciclable compartida.

La presente actuación se engloba dentro de la clasificación de obras tipo “1a) Nuevas Vías Ciclistas” recogida en el art. 20 de la Norma Foral 10/2014, de Vías Ciclistas Forales de Bizkaia.

En virtud de lo anterior, resulta de aplicación lo regulado en la Norma Foral 10/2014, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

Segundo.- Tramitación. Resolución de los trámites de información pública y audiencia y aprobación definitiva.-

Actualmente el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia se halla en tramitación, para su aprobación por las Juntas Generales.





Proiektu hau ez dago 10/2014 Foru Arauaren I. eranskineko Foru Bizikleta Bideen Katalogoaren barruan, eta 20.1.a) artikuluan araututako "Bizikleta-bide berriak" egiteko asmoa dago. Izan ere, oinezkoentzako eta bizikletentzako plataforma berria egitea aurreikusten da. Eraikuntza-proiektuak, gainera, Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko 10/2014 Foru Arauaren 20.2. artikuluan jasotako eskakizuna betetzen du.

El presente proyecto no se haya relacionado dentro del Catálogo de Vías Ciclistas Forales del Anexo I de la Norma Foral 10/2014 y en el mismo se proyecta una nueva vía ciclista de las reguladas en el artículo 20.1.a) "Nuevas vías ciclistas" pues se contempla la ejecución de una nueva plataforma ciclista-peatonal. Con el proyecto de construcción, además, se cumple con la exigencia recogida en el artículo 20.2. de la Norma Foral 10/2014, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

Aurrekoaren ondorioz, 10/2014 Foru Arauaren Xedapen Iragankorrean araututakoa aplikatu behar zaio: aukera ematen du bizikleta-bideen trazadura edo eraikuntza-proiektuak gauzatzeko, harik eta Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana onartzen den arte (20. artikuluko 1 a) taldeetakoa).

Lo anterior determina que le es de aplicación lo regulado en la Disposición Transitoria de la Norma Foral 10/2014, la cual posibilita la ejecución de proyectos de trazado y/o construcción de vías ciclistas en tanto no sea aprobado el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, de los grupos 1 a) del artículo 20.

Agindu horretan adierazitakoa oinarri hartuta, 22. artikuluan araututakoari dagokionez, posible izango da 20. artikuluko 1a) multzoko bizikleta-bidak trazatzeko eta/edo eraikitzeo proiektuen exekuzioa bideratzea, toki-korporazioei 30 egun balioduneko informazio publikoaren eta bi hileko entzunaldiaren izapidea ezarriz. Ildo horretan, beharrezkoa zen egin beharreko informazio publikoaren eta entzunaldiaren izapideak ezartzea Erandioko eta Leioako udalei eta Bilboko Portu Agintaritzari, eta bi izapideok gauzatu dira trazaduraren proiektuaren onspenaren prozeduran.

En base a lo indicado en el citado precepto, en relación con lo regulado en el artículo 22, se podrá viabilizar la ejecución de los proyectos de trazado y/o construcción de vías ciclistas del grupo 1a) del artículo 20, con un trámite de información pública de 30 días hábiles y audiencia por un periodo de dos meses a las corporaciones locales. En este sentido, era necesario cumplimentar el trámite de información pública así como audiencia a los Ayuntamientos de Erandio y Leioa, así como a la Autoridad Portuaria de Bilbao y ambos trámites han sido realizados en el procedimiento de aprobación el proyecto de trazado.

Ondoren, aipatutako araudiaren arabera, jendaurreko informazioaren eta toki-korporazioen entzunaldiaren izapideak ebatzi ziren, eta behin betiko onartu zen trazadura-proiektua.

Posteriormente y según la normativa citada se procedió a resolver los trámites de información pública y audiencia a las corporaciones locales y a aprobar definitivamente el proyecto de trazado.

Une honetan, eraikuntza-proiektua behin betiko onartu behar da. Bidalitako txostenean adierazten denez, onspen honetarako ez da aurreikusi aldeztatik jendaurrean jarri eta behin betiko onartu den trazadura-proiektuari buruzko aldaketarik eta, aplikatu beharreko araudiaren arabera, ez da beharrezkoa berriro jendaurreko informazioaren izapidea egitea.

En este momento procede la aprobación definitiva del proyecto de construcción. Dado que, según se indica en el informe remitido, para esta aprobación el contenido del proyecto constructivo no altera las determinaciones obrantes en el proyecto de trazado que con carácter previo ha sido sometido a información pública y aprobado definitivamente, según la normativa de aplicación no se requiere realizar de nuevo el trámite de información pública.





Hirugarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena du Bizkaiko errepideak eta bideak planifikatzeko, proiektatzeko, eraikitzeko, kontserbatzeko, aldatzeko, finantzatzeko, erabiltzeko eta ustiatzeko, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.34 artikuluan Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiko bizikleta-bideei buruzko 10/2014 Foru Arauaren 1. artikuluan eta horrekin bat datozenetan jasotakoaren arabera.

Ebazteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arautzaileak onetsi zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategineko laugarren xedapen gehigarrian, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 1eko 14/2022 Foru Dekretua (haren bidez, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra aldatzen da, Aurrekontuei buruzko Foru Araua garatzen duena). Hala, eskumenduna da eraikuntza-proiektu hau behin betiko onartzeko.

Horregatik guztiagatik, azpian sinatzen duenak erabaki proposamen hau zuri aurkezteko ohorea du, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilura bidali dadin:

FORU ERABAKIA

LEHENA.- Behin betiko onestea "Itsasadarreko oinezko eta bizikletentzako ardatza Altzaga-Lamiako tartean eraikuntza-proiektua". Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZ gabe, ZORTZI MILIOI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (8.173.576,19€) da, eta BEZa (%21) BEDERATZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (9.890.027,19 €). Obrak egikaritzeko estimatutako epea HAMASEI (16) hilabetekoa

Tercero.- La Diputación Foral de Bizkaia es competente para la planificación, proyección, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras y caminos de Bizkaia según se reconoce en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía de Gernika, el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así como el artículo 1 y concordantes de la Norma Foral 10/2014, de vías ciclistas forales de Bizkaia.

La competencia para resolver corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 14/2022, de 1 de marzo, por el que se modifica el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia (Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre), que desarrolla la citada Norma Foral, por lo que se considera el competente para aprobar definitivamente este proyecto de construcción.

Por todo ello, el que abajo suscribe tiene el honor de someter a V.I., para su posterior elevación al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de:

ACUERDO FORAL

PRIMERO.- Aprobar definitivamente el "Proyecto de construcción del eje peatonal y ciclable de la Ría. Tramo: Altzaga-Lamiako". El presupuesto base de licitación sin IVA, asciende a la cantidad de OCHO MILLONES CIENTO SETENTA Y TRES MIL QUINIENTOS SETENTA Y SEIS EUROS CON DIECINUEVE CENTIMOS (8.173.576,19 €) y con IVA (21%) a la cantidad de NUEVE MILLONES OCHOCIENTOS NOVENTA MIL VEINTISIETE EUROS CON DIECINUEVE CENTIMOS (9.890.027,19 €). El plazo estimado de ejecución es de DIECISEIS (16) meses, con fundamento en el proyecto e





da. Egintza hau arrazoitzeko balio du informes para la aprobación remitidos que expedientean dauden proiektua eta constan en el expediente. onespenerako bidalitako txostenak,

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Bide Berrikuntzarako eta Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiari (Bide Sarea Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia), eta ebazpen honen berri ematea onespenera-prozeduran alegazioak aurkeztu dituztenei, Erandioko eta Leioako udalei eta Bilboko Portu Agintaritzari.

SEGUNDO.- Comunicar el presente Acuerdo a la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria (Subdirección General de Gestión de la Red Viaria), así como notificar la presente resolución a los que hayan presentado alegaciones en el procedimiento de aprobación, a los Ayuntamientos de Erandio y Leioa, así como a la Autoridad Portuaria de Bilbao.

HIRUGARRENA.- Orain jakinarazten zaizun ebazpena behin betikoa da administrazio bidean eta horren aurka, errekurtsioa jarri ahal izango duzu zuzenean, Eukal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI (2) HILABETEKO epearen barruan, argitalpenaren edo jakinarazpenaren egunaren biharamunetik zenbatuta.

TERCERO.- La presente resolución que es definitiva en vía administrativa podrá ser recurrida directamente, en el plazo de DOS (2) MESES, contados a partir del día siguiente al de su publicación o notificación, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri aurretik, aukerako berraztertze errekurtsioa ere jarri ahal izango duzu, ebazpena eman duen organoaren aurrean, HILABETEKO (1) epearen barruan, argitalpenaren edo jakinarazpenaren egunaren biharamunetik zenbatuta. Hala ere, egokitzat jotzen duzun beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango duzu hala nahi baduzu.

Igualmente, se podrá interponer, con carácter potestativo y previo a la vía contencioso-administrativa, recurso de reposición ante el órgano que ha dictado la presente resolución en el plazo de UN (1) MES, contado a partir del día siguiente al de la notificación, sin perjuicio de que pueda ejercitar, en su caso, cualquier otro recurso que estime procedente.

Eskaria Kudeatzeko Ataleko burua / Jefe de Sección de Gestión de la Demanda. MIGUEL ANGEL CASTILLA SAIZ

Plangintza Zerbitzuko burua / Jefe del Servicio de Planificación. JOSE PAREJO HERRERA

Bide Sarea Kudeatzeko zuzendariorde nagusia / Subdirector General de Gestión de la Red Viaria. FELIPE COBO SANCHEZ

Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako zuzendari nagusia / Director general de Innovación y Gestión Viaria. JON LARREA ARRUTIA

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. /De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. IMANOL PRADALES GIL

